Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

## NextGenerationEU

**Enplegurako Prestakuntza / Formación para el Empleo**

Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin **langabeen konpetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa** egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan..*

- *Lehenengo huts-zuzenketa: 2022ko urtarrilaren 4a*
- *Bigarren huts-zuzenketa: 2022ko urtarrilaren 28a*



Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

A. AURREKONTUA:

- Zenbatekoa **5.334.915 euro** da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituaren kontura, eta lotura dute Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin (Europar Batasunak – NextGenerationEUk finantzatuta). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen mekanismo hori.

- Baldin eta 2022. eta 2023. urteetan Euskal Autonomia Erkidegoari Plan horren **funts berriak** transferitzen bazaizkio, zeinek laguntza honekin lotutako ordainketa-kreditu berriak sor baititzatekenak, eskabideak aurkezteko **epe berri bat** irekiko da.



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Gobierno de España | Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

- Honela banatzen dira baliabide ekonomiko horiek **lurralde historikoen** artean:






Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

B. DEIALDIAREN EGOERA: eskabideak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 4an amaitu zen. **Behin betiko ebazpena** apirilaren 1ean eman zen.

C. HELBURUA: **Emakume langabeek**, batik bat landa-eremuan bizi direnek, enplegura bideratutako **konpetentzia digital berriak eskuratzea**, prestakuntza ez-formalaren bidez. (‘108- Gaitasun digitalak garatzeko laguntza’ izeneko esparruko jarduerak)



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



D. ENTITATE ONURADUNAK:

- **Prestakuntza-entitate pribatu edo publikoak**, baldin eta dirulaguntzaren eskaera aurkezteko unean eskatzen dituzten prestakuntza-espezialitateak emateko **inskribatuta badaude** Lanbidek kudeatzen duen prestakuntza-entitateen erregistroan, autonomia-erkidegoetako beste erregistroan edo Estatuko erregistroan.

- Prestakuntza-entitateek **giza baliabideak eta baliabide materialak** izan beharko dituzte**.** Ezin da azpikontratatu prestakuntza-jarduera gauzatzea, baina ez da azpikontrataziotzat jotzen prestakuntza emateko irakasleak (pertsona fisikoak) kontratatzea.



Europar Batasunak finantzatuta NextGenerationEU
Gobierno de España
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

E. PRESTAKUNTZA-PLANA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUNA:

- Diruz lagundu ahal izango dira **I. eranskin**ean jasota dauden eta **konpetentzia digitalak eskuratzea helburu duten espezialitate**en inguruko prestakuntza-ekintzak dituzten prestakuntza-planak.

- Eskaera aurkezteko unean, entitateek **espezialitate berriak** proposatu ahal dituzte eta Espezialitateen Katalogoan inskribatu, VIII. eranskina erabilita, espezialitate berri horiek baliozkatze aldera.

- Espezialitate berriek **40 ordu**ko iraupena izan behar dute.



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Gobierno de España
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea



## F. PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:

- **Aurrez aurrekoak** izango dira.
- 2022ko **abenduaren 31a** baino lehen amaituko dira.
- Gehieneko partaide kopurua **20** izango da, eta gutxienekoa **8**.
- Beste **bi** parte-hartzaile ere onartu ahal izango dira prestakuntza-ekintzetan, baina partaide gehigarri horiengatik ez da dirulaguntzarik jasoko.
- Prestakuntza-ekintzen iraupena **40 ordu**koa izango da, edo gutxiagokoa, baldin eta prestakuntza-ibilbide baten parte badira (azken kasu horretan ibilbideak guztira 40 ordukoa izango da.)



Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## G. PRESTAKUNTZAREN HARTZAILEAK:

• Lanbiden edo Gazte Berme Sistema Nazionalaren Fitxategian enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden **emakume langabeak**, batik bat **30.000 biztanletik beherako udalerri** batean bizi direnak. (Prestakuntza-ekintza bakoitzeko parte-hartzaileen % 35 izan behar dute, gutxienez).

• Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden edo Gazte Berme Sistema Nazionalaren Fitxategian izena emanda dauden **gainerako emakume langabeek** ere parte hartu ahal izango dute (betiere prestakuntza-ekintza bakoitzaren % 65 gainditu gabe).

Emakume **langabeen taldean** lanaldi partzialeko kontratu batekin ari diren emakume langileak sartzen dira, baldin eta beren lanaldia lanaldi osoz aritzen den pertsona batek duenaren **herena baino laburragoa** bada.



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Gobierno de España · Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco

## H. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

- Prestakuntza-ekintzek **orduko 13 euroko** modulu ekonomikoa dute **parte-hartzaile bakoitzeko.** ez da inoiz izango 520 eurotik gorakoa (parte-hartzaile bat, 40 ordu).

- Ezin izango du prestakuntza-entitate batek **250.000 euro** baino gehiago jaso.





Europar Batasunak finantzatuta NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## I. LAGUNTZA ZEHAZTEA:

- **Espezialitate** bakoitzeko **lurraldeka** onets daitezkeen **prestakuntza-ekintzen gehieneko kopurua:**

| | FCOI08, FCOI10, FCOI11, FCOI12, FCOI13, FCOI14 | Beste espezialitate batzuk |
|---|---|---|
| Bizkaia | 20 | 8 |
| Gipuzkoa | 18 | 7 |
| Araba | 16 | 6 |



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

- Prestakuntza-entitateek **ezin izango dituzte prestakuntza-ekintzak aldatu lurralde historiko batetik bestera**. Lurralde historiko batean baino gehiagotan prestakuntza-zentroak dituzten erakundeek kontuan hartu behar dute ekintzak Lurralde Historiko jakin batean kokatutako prestakuntza-zentro bati lotuta daudela.

- Balorazio-fasearen ondorioz eskatutako ekintzen **lehentasun-hurrenkerari** jarraituz emango dira dirulaguntzak, dirulaguntza-lerro bakoitzerako baliabideak agortu arte.



Europar Batasunak finantzatuta NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

J. BANAKETA LURRALDEKA:

| LAGUNDUTAKO JARDUKETAK | ESKATUAK | ONARTUAK |
|---|---|---|
| PLANAK | 43 | 41 |
| EKINTZAK | 472 | 432 |
| ESPEZIALITATE BERRIAK | 4 | 4 |
| PRESTAKUNTZA-IBILBIDEAK | 90 | 87 |

Deialdi hau finantzatzeko **5.334.915 euro**etatik onartutako ekintzak guztira **3.173.560 euro**koak dira.



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea



K. PARTE-HARTZAILEEN HAUTAKETA, KOLEKTIBOEN ARABERA:

- **Lehentasun** osoa izango dute **30.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren emakume langabeek.**

- 30.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren emakume langabeek prestakuntza-ekintza bakoitzeko ikasleen **% 35** izan behar dute, gutxienez.



Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Konpetentzia Digitalak Hobetzea

L. JARRAIPENA ETA KONTROLA:

• **Bisitak** egingo zaizkio prestakuntza-entitate bakoitzari, onetsitako prestakuntza-ekintzen **% 30eko laginketa** eginez. **Gehienez ere bost** ekintza bisitatuko dira entitate bakoitzean, kopuru horrek % 30 gainditzen badu.





Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

M. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA:

- **Lehen ordainketa**: planaren **dirulaguntza osoaren % 60**, lehen prestakuntza-ekintza hasi dela jakinarazi ostean.

- **Bigarren ordainketa**: prestakuntza-planari dagozkion dirulaguntzaren gainerakoa, prestakuntza-ekintza guztiak amaitzean, diruz lagundutako jarduerak justifikatu ondoren.





Europar Batasunak finantzatuta NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

# Eskerrik asko!



Europar Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO